# GUL

gizarteratzeko udal laguntza

AMISak aldian-aldian ematen ez diren prestazio ekonomikoak eta dirulaguntzak dira, eta gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren gastu espezifiko arruntei edo ohiz kanpokoei aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten pertsona/familientzat dira.



## NOR?

Hauek dira zerbitzu hau eskura dezaketen pertsonak:

- Gutxienez hiru hilabete lehenago Ermuan erroldatuta dauden eta bertan bizi direnak.
- Beste laguntza ekonomiko batzuk jasotzeko eskubiderik ez duten pertsonak, salbuespenezko kasuetan izan ezik.
- Ohiko etxebizitza ez den beste higiezinik jabetzan ez duten pertsonak.
- Urtero ezarritako urteko diru-sarreren mugak gainditzen ez dituzten pertsonak.
- Urtero ezarritako ondare-baliabideak gainditzen ez dituzten pertsonak. .

## NOLA ESKATZEN DA?

Zerbitzua eskatu aurretik, beharrezkoa da hitzordua izatea gizarte-langile batekin, zure premiei hobekien erantzuten dien zerbitzua den ala ez batera baloratzeko eta sartzeko baldintzak betetzen diren erabakitzeko. Hitzordua telefonoz edo aurrez aurre eska dezakezu gizarte-zerbitzuetan bertan edo Abiapuntun.

Ermua

## ESKUDUNTZA

Udal-eskumena:
Ermuko Udala

943 179 161

Erdikokale 21,
48260 Ermua